| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **aberri** | norberaren sorterria |
| **adeitasun** | kortesia, jendetasuna |
| **ahalik eta lasterren** | lehenbailehen |
| **aho bete hortz** | harrituta, txundituta |
| **akasgabe** | perfektua |
| **akiturik** | nekatuta, indarrik gabe |
| **alena** | halakoa |
| **alproja** | ganorabako alferra |
| **amaraun** | armiarma sarea |
| **amarru** | azpikeria, trikimailua, engainua |
| **anabasa** | nahaste-borrastea, nahaspila |
| **andana** | mordoa, piloa |
| **apalkeria** | jarrera lar apala |
| **ardaila** | zalaparta, harrabotsa |
| **arian-arian** | ekin eta ekin, pixkanaka |
| **arlote** | zarpaila, trauskila / eskalea |
| **arre** | beltxazka, iluna, nabarra |
| **atalase** | ataria, atartea |
| **atorra** | alkandora |
| **auhen** | atsekabezko oihua, erosta |
| **azti** | belagilea |
| **babo** | ergela, leloa, papaua |
| **begia begi truk** | mendekua |
| **begiak bildu** | lo egin, lokartu |
| **begizkoa egin** | madarikazioa bota |

| Hitza | Esanahia |
| --- | --- |
| **belagile** | aztia (*hechizero*) |
| **bere onean** | lasai, patxadaz |
| **betertzetik so egin** | zeharka bezala begiratu |
| **bidazti** | bidaiaria, ibiltaria |
| **bidenabar** | bide batez |
| **brast** | arin eta zakarki |
| **brodatu** | hariz irudiak egin |
| **desenkusatu** | ezina adierazi, barkamena eskat |
| **dohain** | bertutea, kualitatea |
| **dzanga** | hurrupada, tragoa |
| **egonarri** | eroapena, pazientzia |
| **egotzi** | leporatu, errua bota |
| **egurastu** | aireztatu |
| **egurats** | atmosfera, giroa |
| **eldarnioetan** | sukar-ametsekin, deliratzen |
| **eratsu** | portaera neurritsukoa |
| **erlikia** | iraganeko gauza, zaharkitua |
| **erraustu** | kiskali, suntsitu |
| **erretolika** | *sermoia*, txapa, kalaka |
| **errezeloz** | mesfidati, aieruz, susmo txarrez |
| **espantuka** | harrokeriatan |
| **estimu** | begikotasuna |
| **estolda** | isurbidea |
| **euforia** | poz neurrigabea |
| **ez entzunarena egin** | entzungor egin |

| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **ezin konta ahala** | zenbaezinak |
| **ezjakin** | jakin gabe |
| **fardel** | paketea |
| **fitsik ere ez** | tutik ere ez, ezertxo ere ez |
| **gaina eta bikaina** | *pieza* onena (*la flor y nata*) |
| **garondo** | kokotea, buruaren atzeko aldea |
| **gorgarri** | burrunbatsua |
| **gorriak ikusi** | gaizki pasatu |
| **gosari legea egin** | gosaldu |
| **gupidagabe** | bihozgabea, krudela |
| **habaila** | harriak jaurtikitzeko tresna |
| **habe** | zeharraga |
| **handioski** | harro, burgoi |
| **hanka egin** | ospa egin, ihes egin |
| **hatsanka** | arnasestuka |
| **hazpegiak** | aurpegiko ezaugarriak (*rasgos*) |
| **hegi** | magala |
| **herrestan ebaki** | moldegaizki ahoskatu |
| **hurrupaka** | zurrupaka, edaten |
| **ibar** | harana |
| **ihar** | errea, argala, loditasunik gabea |
| **ika-mika** | eztabaida, sesioa |
| **iltze goriari heldu** | azken aukerari eutsi |
| **inposatu** | indarrez ezarri |
| **ipurtzulo** | uzkia |

| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **iraungi** | itzali, amatatu |
| **irriño** | barretxoa |
| **iruzkin** | komentarioa |
| **isil-gordeka** | sekretuan, ezkutuan |
| **izpi** | arrastoa |
| **izu-laborri** | izu-izua (*pánico*) |
| **jende** | pertsona |
| **jendilaje** | jendaila, jende txarra |
| **jitoan** | nora ezean, alderrai |
| **jopu** | esklaboa |
| **kakatsu** | koldarra, nazkagarria, zoldatsua |
| **kalaka** | erretolika |
| **kankailu** | handikotea, handi-baldarra |
| **kargu hartu** | aurpegiratu, kontuak eskatu |
| **karrika** | kalea |
| **kikildurik** | mekotuta, koldartuta |
| **kirikatu** | espiatu |
| **kitzikatu** | zirikatu, hauspotu |
| **koilara zopatan** | zerbait egiteko une-unean |
| **kontseilari** | aholkularia, gobernukidea |
| **kontu handia hartu** | arretaz zaindu |
| **kriseilu** | oliozko lanparatxoa |
| **larderiatsu** | beldurra eragiten duena (*temible* |
| **lausengu** | gehiegizko alabantza, balakua |
| **lehen-min** | nostalgia |

| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **lerdea zeriela** | lelotuta |
| **luze gabe** | handik lasterrera |
| **marmarrean** | ahapeka, txutxu-mutxuka |
| **mela-mela** | blai, erabat bustita |
| **menturazale** | abenturazalea |
| **mesfidantza** | errezeloa, sinesgaiztasuna |
| **minberatu** | mindua, zauritua |
| **mirakulu** | miraria |
| **mitiko** | leiendakoa, jainkozkoa |
| **mizkin** | ahozuria, errefinatua jateko |
| **mortu** | bakartua, hutsa |
| **motzondo** | enbor ebakiaren hondarra, ipurdi |
| **muino** | tontorra |
| **murru** | harresia, horma gotorra |
| **naturaz gaindiko** | berezia, magikoa |
| **nolakotasun** | ezaugarria |
| **ñaño** | kakanarrua, ipotxa |
| **odolustu** | odol gabetu, odol asko galdu |
| **oka egin** | botaka egin |
| **oldartu** | indarrez inguratu, eraso antzean |
| **papar** | bulargaina, kolkoa |
| **partekatu** | erdibana egin |
| **patxada galdu** | urduritu, ernegatu |
| **perlesiaturik** | ezinduta, elbarri bezala |
| **piko** | malda zorrotzekoa |

| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **piltzar** | ehun zati urratua, zati apurtua |
| **plantak egin** | itxurak, gezurretako keinuak |
| **premiatu** | arin ibiltzeko eskatu |
| **primeran moldatu** | ederto konpondu |
| **purrustada** | protesta, mespretxuzko keinua |
| **putre** | saia, hegazti haratustel jalea |
| **sarraski** | hilkuntza, masakrea |
| **sasikume** | sasikoa, putakumea |
| **segizio** | jarraigoa, jarraitzaile multzoa |
| **sitsak janda** | pipiek zulatuta, hondatuta |
| **so egin** | begiratu |
| **soilduta** | ebakita, moztuta |
| **sos** | txanpona, dirua |
| **tapaki** | estalkia |
| **taxutu** | moldekatua |
| **tokitan egon** | urruti, batek daki non |
| **totelka** | zezelka, motel-trabatuta ahoskat |
| **trumilka** | piloan, samaldan, tropelean |
| **txatxututa** | ergelduta, lelo bihurtuta |
| **txepel** | koldarra, kakatia |
| **tximaluze** | adats edo ilaje ugarikoa |
| **ulu** | alaraua, uhuria |
| **urgente** | premiazkoa |
| **uzkurtu** | batuta, bilduta bezala |
| **zakuto** | zorroa, aneka |

| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **zamari** | zama eramateko abereak |
| **zangotraba egin** | zangartea jarri, tupust eginarazi |
| **zarpail** | arlotea, itxura zatarrekoa |
| **zarrasta** | bihotzeko ukitua, inpresioa |
| **zentzatu** | arrastoan sartu, serio jokatu |
| **zetaka** | orbana, zikingunea, mantxa |
| **zezeldu** | zailtasun handiz ahoskatu |
| **ziplo** | bat-batean, tupustean |
| **zira** | euritarako kapusaia |
| **zirri egin** | ferekatu |
| **zirtzilatu** | zati-zati egina, triskatua |
| **zuritu** | justifikatu |